

ERRENDERIKO EDESTI KONDAIRAREN BERRI LABURRAK (JOLASBIDEAK)



VICENTE ELICEGUI

Juan Ignacio Gamonen «NOTICIAS HISTORICAS DE RENTERIA» liburuari, Serapio Mujika eta Fausto Arocena'k egindako geigarritik artu eta euskeratutako txetasunak dituzue nolakoak ziren azkeneko mendeetan Errederiarren jolasbideak azaltzen diran idaz lan onetan.

Len esaten zan bezela Errederiarren arteko jolasbideetan lekurik bereziena dantzaren jardunaldia zan.

Antziñatik, 1573, garren urtean Korpus eguneko eliz biran, amabost bat mutil gazte arteko dantzari talde bat izaten zan eta berauek oiñetakoz eta janariz ornituak izaten ziran udal etxearen gain, beren dantzarako ikasketak irauten zuten denboran, berauen irakaslea udal etxeko txistularia izanik.

Berauen antzekoak izaten ziran eliz jai eta erriko jaietako oroipenetan egiten ziranetan bañan dantza auen artean arkitu izan ditugu izen arrotzekoak beren jatorria nondik datorren aztertu eziñik eta gai ontako aztertzaileari usten diogu gai oni buruz zer edo zer egin nai badute.

Auxe gertatzen zaigu «ijito dantza» izenekoarekin 1599,an Madalen egunean bere ereskiñarekin dantzatzen zana, berdin ere «Jantzi dantza», «Alero dantza» eta «Agai dantzarekin». Agian «Alero dantza»ren jatorria izan leike berau dantzatzen zutenak itxas ontzitako mariñelak izatea, «Alai» izeneko ontziak bai ziran denbora artan erabiltzen ziranak burni oletara mea eramateko.

Onurakorragoa iruditzen zaigu «Agai dantzarena» makil dantzaren kidekoa izanik «Agai» sagar zuaitzak aztentzen erabiltzen dan makillaren izena izanik.

Batzuetan dantzariak beren eginkizunak luzatu egiten zituzten 1599,an gertatu zan bezela, bere zaindari festa egun ondoren urrango egunean antzerkia bat egin zuten «Magdale-naren bide oneratze eta neke arte» izenekoak.

Denbora aietan bearrezko osagarria izaten zan dantzari-entzako, txistularien kidetasuna eta beronek erriko maisu, botikario, osagille eta lege gizonen antzeko giza mailla izaten zuan, erriko udalak bere eginkizunak ordaindu al izanik.

1602,garren urtean Martin de Txipres izeneko txistularia amabi dukaturekin lñauterritako jaialdiarengaitik.

Lenago adierazi dugu dantzariak antzerki lanak ere egiten zituztela eta 1603,go urtean «La conversión y penitencia de la

XABIER

Magdalena», «La vida y loas de San Juan», «El triunfo de la limosna» oteun antzerkiak (Auto sacramental) egin ziran bañan azken izenekoak egiteko baimen berezi bat bear izan zan.

Ez zan Errederia beste Gipuzkoar errien apartekoa zezen-keta gaiean erri jolasetarako eta XVI.garren mendeetan arkitzen diren txetasunetan azaltzen dira nola lenengo aldiz egin zan zezen jaia erriko festetan eta auek egiñik «Arrabal» izeneko uriauzoan orain Magdalena elizatxoa dagoen ondoan, bañan gertatzen zan kale egalean zegozten etxeak ez zuzenean eta nekagarria izaten zala ikusleentzat.

Eta gertatu zan 1630,go urtean Frantzetarrek errira sartu ziranen kale egalean zegozten etxeak, beste askoren antzera erre egin zituzten eta naiz nekagarria izanik eginkizun ura, erria baliatu izan zan lurralde aiek erriarentzako erosirik eta bertan zezen enparantza bat bertan sorturik.

1630,go urtean Garagarrillaren 21,ko Udal agirian artzen da erabakia, zortzi zezen izan ditezela Magdalen biramonian, egin araziz 1,500 aga (Garrocha), udal etxeko agintarientzat leku berezi bat ere eta emparantzan errailla (barrera) batzuek jarririk.

1699,go urtean amar zezenera aunditu ziran zezenen ibillerak eta 1701,an bi zezen jaialdi berezi egin ziran Andre Mari Jasokundearen irudia, aldare buruan bigarren aldiz ipintzen zalako.

Bañan Errederiaren jolasketa goiengoena pilota jokua izandu zan igaro zan mende alde izaeran, jokalaria auek erriaren izena munduaren zear goratu al izanik eta era orretan erriak auetako baten izena (Vizente Elizegi ain zuzen) erriko kale bateri eman zion, Gamon, Zamalbide, Matxin, Aldunzin eta beste Errederiar edesti gizon, lege eta guda gizonen antzera, bera eta beste pilotariari goratarre egiñaz.

1826,go urte aurretik badira txetasun batzuek jolas auen berri ematen dutenak, bertan ikusten degu «luzea» izeneko jokua zala orduan geien jokatzen zana eta berau Egiluzeko zelaian jokatzen omen zan, ormarik ez bai zuben bear izaten jolas mota onek.

Saio obek zirala ta eztabaida asko sortzen omen ziran bertara joaten ziranen artean eta erriko udalak galerazi egin zuan bertan eta beste baserri zelaian egiten ziran jaialdiak baimen berezi bat bear al izanik erriko enparantzan jai aldia egiteko.

Ala gertatu zan frantzetarren menperatze denboran eta 1847,an ta 1861,an baimen bereziak bear,izanik enparantzan jokatzeo ain jolas apalduna eta garbia izanik.

Lenagoko pilota lekua «Arrabal» auzoan eta berria (orain dagoena) 1844,an egin zan Segundo Etxeberrira,ren zuzendaritzapean 110,mt luze eta 24 mt zabal zituellarik eta bere zabaltze egunean Eibarko Txikia eta Bergares,ek Lizurume eta Brau txikiaren aurka jokaturik.

Azken mendeko eta bizi geran mende aurren urteetan Musika talde, Abesbatzak, Dantzari, kiroltzale eta bertsolariak ere izandu ziran.

Zer esan ordutik orain bizi geraden urteetako jolasbidearen izaeraren berri; aukera guztietakoak izan dirala eta Errederia beti izan dala jolasketarako prest egon dan erria.